



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK BARIKU HONETAN ITXIKO DABE DURANGON EUREN ERAKUSKETA IBILTARIA

- **“Bizkaiko Batzar Nagusiak, ezagutu” erakusketa lau hilebetz ibili da lurraldean zehar, bizkaitarren bizitzan pisu handia dauen ehun urte baino gehiagoko erakunde horren garrantzi historiko eta kulturala ezagutzen emoteko.**
- **Erakusketea Bizkaiko lau barrutietatik igaro da. Bilbon, Getxon eta Portugaleten egon ostean, Durangon egongo da bariku honetara arte.**

(Bilbon, 2021eko garagarriaren 26an). “Bizkaiko Batzar Nagusiak, ezagutu” erakusketak Durangon itxiko dau bariku honetan lurraldean zehar egin dauen ibilbidea. Bizkaiko Batzar Nagusiek, Europako sistema parlamentario zaharrenetako baten garrantzi historikoa, soziala eta kulturala erakusten dauen erakusketa ibiltari hori hartuko dauen azkenengo eskualdea Durangaldea izatea gura izan dabe, Bizkaiko Batzar Nagusiek babestutako erakusketea azkenengo lau hilebeteetan lurraldeko ganerako eskualdeetan zehar ibili ostean. Aurretik, Bilbon, Getxon eta Portugaleten be egon da.

Ana Otadui Biteri Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariak azpimarratu dauenez, “milaka persona joan ahal izan dira, bertaratu barik, bizkaitar guztien etxea danera”. Erakusketa honen bidez “Batzar Nagusien funtzino parlamentarioan eta ondare kultural aberatsean eragin gura izan dogu”. Izan be, hori guztia ezezaguna da persona askorentzat, bertako ordezkari politikoek “egunerokotasunean guztiongan eragina daukien” erabagi garrantzitsuak hartzen dituen arren. Halanda be, “badakigu nor garan eta guk egiten dogunaren inguruan ezjakintasun handia dagola”, gogorarazo dau Otaduik, “hortik dator kalera urteteko egin dogun ahalegina”.

“Bizkaiko Batzar Nagusiak, ezagutuz” erakusketea formatu handiko 12 panelek osatzen dabe, eta erakunde parlamentario moduan daukan eskumen-egitura zabala azaltzen dau, eta baita batzen dauen kultur ondarea be. Erakusketan ibilbide xume bat eskaintzen da bere lau egoitzetako (Bilbo, Gernika, Abellaneda eta Gerediaga) eukietatik, Gernikako Batzarretzean zehaztasun handiagoagaz geldituz, Gernikako Arbolea demokraziaren, askatasunaren eta bakearen euskal sinboloaren babeslekua dalako.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA CERRARÁN ESTE VIERNES EN DURANGO SU EXPOSICIÓN ITINERANTE

- La muestra “Las Juntas Generales de Bizkaia, conócelas” ha viajado por el territorio durante cuatro meses para dar a conocer la trascendencia histórica y cultural de esta institución centenaria que tiene un enorme peso en la vida de vizcaínos y vizcaínas.
- La muestra ha pasado por las cuatro circunscripciones de Bizkaia. Permanecerá en Durango hasta este viernes, tras haber estado anteriormente en Bilbao, Getxo y Portugalete.

(Bilbao, a 26 de julio de 2021). La muestra “Las Juntas Generales de Bizkaia, conócelas” cerrará este viernes en Durango su periplo por el territorio. La Cámara vizcaína ha querido que Durangaldea sea la última comarca en acoger esta exposición itinerante que muestra la relevancia histórica, social y cultural de uno de los sistemas parlamentarios más antiguos de Europa, después de que la muestra, auspiciada por la Cámara vizcaína, haya recorrido el resto de comarcas del territorio durante los últimos cuatro meses. Anteriormente, ha estado también en Bilbao, Getxo y Portugalete.

La presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui Biteri, ha destacado que “miles de personas han podido trasladarse, sin hacerlo, a la casa de todos los vizcaínos y vizcaínas”. A través de esta exposición “hemos querido incidir en la función parlamentaria y en el rico patrimonio cultural que atesoran las Juntas”, algo que es desconocido para muchas personas pese a que sus representantes políticos toman decisiones importantes “que nos afectan en el día a día. Somos conscientes de que hay un gran desconocimiento de quienes somos y lo que hacemos”, ha recordado Otadui, “Por eso nuestro empeño en salir a la calle”.

“Las Juntas Generales de Bizkaia, conócelas”, se conforma a través de 12 paneles de gran formato, donde se explica la amplia estructura competencial como institución parlamentaria y también el patrimonio cultural que atesoran las Juntas. En la exposición se ofrece un sencillo recorrido por el contenido de sus cuatro sedes (Bilbao, Gernika, Abellaneda y Gerediaga), parándose con más detalle en su sede principal, la Casa de Juntas de Gernika, por ser refugio del símbolo vasco de la democracia, la libertad y la paz, como es el Árbol de Gernika, y del cuadro “El Besamanos” de Francisco de Mendieta que preside el salón de plenos y que ha sido considerado el primer retrato colectivo de mujeres del arte europeo.